


www.noaia.com

# N u !



200 etrebizitza  
eraiki nahi dira Ugarten



# Dominaren bila

Atenasko Paraolimpiar Jokoetan  
lehiatuko da Amador Granado txirrindularia



Mora nafarri  
Haur-jakileak  
Paz Rodriguez  
Sauma  
dodipetto  
ALPHABET  
absorba

**Etorri zaitezte neguko erropa berria ikustera**

TUC - TUC  
TRUPIAL  
PAZ RODRIGUEZ

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Informazio interesgarriena gure web gunean

Eguraldi iragarpena, lan merkatua,  
hemeroteka, agenda, albisteak,  
inkestak, foroak, osasun zerbitzuak,

ALBISTEAK ZUK ZEUK IDATZI  
OSO ERRAZA DA!

[www.noaua.com](http://www.noaua.com) - Usurbilgo ataria

**IBAI ONDO ELKARTEAK SANESTEBAN  
JAIETAKO PLATER TIRAKETAN  
LAGUNDU ZUTEN GUZTIEI  
ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE**

- Aialde-Berri Sagardotegia
- Tragoxka Taberna
- Txitxardin Jatetxea
- Ingemar
- Zumeta Jatetxea
- Arratzain Mendiluze
- San Esteban Jai Batzordea
- Manterola Gasolindegia
- Manterola Txitxardinak
- Berasategi Akeitak
- Saltxipi Jatetxea
- Telesforo Ardoak
- Eizmendi Kirolak
- Fagor Automotion
- Aizpurua Autobusak
- Usurbil Autoak
- Iruin Sagardotegia
- Erroizpe Elkarte
- Egioleta Sagardotegia
- Usurbilgo Udala
- Andrés Bruño e Hijos
- Andazpe Elkarte
- Alamandegi Estankoa
- Urdantzi Igeltseritza
- Urtinea Lorategia
- Etxebeste Ardoak
- Jamones y Embutidos Euro-Label
- Pello Arrandegia

**ESKERRIK ASKO!**



# Txirrikitutik

Zubietako etxe berrien eta bertako inguruaren erai-kuntza lanak aurrera jarraitzen dute. Aipatzekoa da egin duten frontoi ikusgarria eta oinezkoentzako pasabidea. Guztiz aldatu zaigu Zubietako kaxkoa. Baina aldaketak ez dira soilik berrikuntzak izan, zaharrak ziren zenbait eraikuntza desagertu egin baitira, bolatokia esaterako.

Argazkia 1997 urtean aterata dagoen arren garbi dago bertan ikusten dena Zubietako bolatoki zaharra dela. Zoritxarrez gaur egun ez dago bertan, kendu egin baitute eta ingurune guztian plaza egin dute. Bolatokia errebote plaza-ren aldamenean ageri da, zuhaitzez inguratua. Argazkiaren ezkerrean Aizpurua baserria ikus dezakegu eta eskuinaldean berriz Kaleberri etxea. Bolatokia ordurako nahiko egoera kaxkarrean aurkitzen zen, argazkia ikusi besterik ez duzue.

Azken hamarkada hauetan gure herriak aldaketa ugari izan ditu. Gizartea aurrera doa eta berrikuntzak nagusitzen zaiz-



EGILEA: NOAUA!K.E., 1997KO URTARRILAK 24, JABETZA: NOAUA!K.E. ZUBIETA BOLATOKI ZAHARRA.

kigu. Ordea, ez dugu gure iragana bat-batean desagerrarazi behar, zaindu eta babestu egin behar dugu.

Zalao Arnaiz Ibarguren

**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

## N u !

**Argitaratzailea :** Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

**Publizitatea:** Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonto Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

**Informatika:** Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Sei Orduetan ateratako erretratua

## Aurkibidea

UGARTEKO PROMOZIO BERRIA

5. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN

6. ORR.

IKASTURTEA HASI DA

10. ORR.

ERREPORTAJEA

12. ORR.

Guraso Eskolak ikastaro interesgarriak antolatu ditu. Bestelako eskaintzarik ere bada, eta hori guztia jaso dugu orriotan.



SANTUENEAKO JAI EGITARUA

14. ORR.

AGINAGAKO PILOTA TXAPELKETA

16. ORR.

AMADOR GRANADO, ATENAS BIDEAN

17. ORR.

EKTITALDI GARRANTZITSUENAK AGENDAN

22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

## Zutabea !



AITOR LANDALUZE

## Errauskailuari prosa bat

**G**ure agintari eta administrari gorenak, oraingo honetan Diputazio eta udaletxetakoak, langile finak. Besteok, arazo potolo eta goi-mailako kudeaketarako ulermen gaitasunik ez dugunok oporretan edota olgetan ginen bitartean, beraiek gerra gotorleku batean itxi ziren udarako erabaki garrantzitsuak hartzeko. Horietako erabaki asko daude, maila guztietan, batzuk oso ezagunak ditugu. Dirudienez erabaki zailak udarako uzten dira. Udararen beroaz boligrafoetatik tinta errazago ateratzen al da, denen begietan, sinatu ezinak diren erabakiak sinatzeko?

Gure agintari gajoak. Ahaldunengan beroak sortzen duen neuronon azkartasuna aprobetxatzeko uztaileko goiz eguzkitsu batean, horra joan ziren, San Markoseko gotorlekura. Harresien barruan, lur azpian. Lotsak, harresia zeharkatu ezingo balu bezala gotortu ziren eta errauskailuak erabaki. Gerora arduratsu transzendental aurpegiak jantzirik, esango zuten:

“Beste erremediorik ez dagoela; ez dela hori gustukoa duten erabakia; denen onerako hura dela kalterik txikiena sortuko duena; erabakirik garbiena hauxe dugu; kontra-

koa esaten ari diren horiek alarmista arduragabeak direla eta interes ilunek bultzatuta egiten dutela...”.

Gure agintari politikariak; goi mailakoak zein erregionalekoak, beti erabili ohi dituzten aitzakiak, hitz hutsak, topikoak eta abar luze bat gezurrak estali ahal izateko. Beren jokorik gogokoena, dena esatea ezer entzun gabe. Azalpenik ez dugu merezi, ez eta informaziorik ere; eztabaida? *Eztapentsatuere!*... Gotorlekuetako erabakiak sendoak eta irmoak dira, harrizkoak, hotzak mugi ezinak.

Gure agintari jakintsuak, erabaki handiak azkar eta berehala hartzen dituztenak. Ez dute informazioak kontrastatzaren beharrik edo bestelako alternatibarik aztertu. Ez dute ezer aurreikusi behar, momentuan ikusten dutelako eta horrela gure premiak asetzeko behar direnak instantean erabakitzeko ahalmena dute. Are gehiago, legitimitaterik ez edukitzeak ere, ez die duda izpi txikiarik ere sortzen.

Gure agintari gizon emazte, ispiluan; berdin al zaie osasuna galtzeak sortzen duen dependentzia eta beldurra? Ez al dute penik galduko denaz edota direnaz? Zer irabaziko dugu? Dute? Zer afalduko dute gauean lo lasai egin ahal izateko?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

## Hemeroteka !

## Ardia

**E**uskal Herriko animalia zaharretakoa dugu. Gure lurra-  
ren nortasun zati bat du gordea. Euskalduna berriz zalea izan da eta da milaka urtetan, ile luze-luze eta latzeko animalia maite hori. Mutur beltzak, adardunak, adargabeak, mutur gorriak, sasiardiak... Guztiak nahasi gabe mantentzen jakin duzuen artzain onak, ardi mota bakoitza bere tokian. Zuek edertzen duzue gure herria. Zuek gabe ez dira berdin gure begientzat zelai eta mendiak. Udaberrian mendia ez da hostoz, lorez eta kolorez bakarrik pizten. Artzainak

bukatzen du soinu mendia edertzen, bertan ibiliko ditu zelai eta harkaitzetan barrena. Zuengatik dira gure herriko mendiak diren mendirik ederrenak.

Artalde bat larrean kilin kalanka. Hori da bakea. Bake honek kutsatu behar luke artzaina. Baina, tamalez, kutsakorrek gaitz txarrak bakarrik dira. Baserri munduan bada hamaika istilu, elkar ezin ikusia eta horrelaxe bizi gara. Tristeia da. Urritikoarekin ongi konpontzen gara eta oso urrutikoa baldin bada, oraindik ere hobeto. Auzokoarekin, berri, gaizki eta bera da beharrezkoena.

Baserritarren elkarteak ere guztiak ongi izateko eta aurrera egiteko sortu dira, baina hauek ere ume egiten hasiak dira alde batera eta bestera.

Ia gaurko hau adiskidetzeko egun bat izaten den.

**Jon Harreguy Artze**

Artzain Eskolako ikasle ohi bat

\* Legazpin egin berri den Gipuzkoako Artzain Eguneko egitarau-liburuxkatik hartutako idatzia.

# 200 etxebizitza berri begibistan

**U**garte industrialdeak beste itxura bat har dezake epe laburrean. Udalak, pabilioiak Atallura eraman eta bertan etxeak eraikitzeke egitasmoa du-eta. Azken orduko aldaketarik ez bada, epe laburrean 192 etxe berri jasoko ditu Kalezar ondoan dagoen zonalde honek. 96 salmenta librekoak izango lirateke; gainontzekoak, tasatuak eta babes ofizialekoak.

Luis Mari Ormaetxea alkateak zuzentzen duen udal gobernuak 200 etxebizitza inguru eraikitzeke proiektua aurkeztu die Ugarteko enpresa, tailer eta lur jabeei. Urbanizazio hau ez zegoen aurrikusita, baina maiatzean, Atallukoa konpondu zenean, hizpide dugun promozio hau bideratzeko aukera sortu zen. Egitasmoa plenotik pasa zen uztailearen bukaeran. Oraindik tramitazio ugari egin beharra dago, baina ez dirudi proiektuak atzera egingo duenik. Are gehiago, epeak ere aurrikasi ditu Udalak: 2006 urte hasieran egingo lirateke babes ofizialeko etxebizitzentz zozketak.

Esan dugu, Atalluko operazioarekin harremanatuta dago Ugarteko promozioa. Maiatzean askatu zen Atallu industrialdeko korapiloa. Berriola Kooperatibak, hasiera batean Udalarena zen Atalluko partzela bat eskuratzeko asmoa zuen. Baina azken orduan, atzera egin zuen Berriolak eta Udalaren eskuetara itzuli zen aipatu partzela. Aukera hori baliatuz, udal gobernuak proposamen hau egin die Ugarten dauden tailer eta enpresei: Ugarte utzi eta Atallura mugitzeke aukera. Honela, Udalak hiru premia nagusi asetuko dituela azaldu digu Luis Mari Ormaetxea alkateak:

1. Udal funtzionamendua hobetu asmoz, Zerbitzuetako lan brigadak egoitza bakar batean zentralizatu (Atallun, hain zuzen).

2. Urbanistikoki herria orekatu. Olarrondo eta Artzabalgo urbanizazioekin, Ugarteko industrialdea etxer inguruta geratuko litzateke. Enpresa eta tailer horiek Atallurako joango balira, zonalde erresidentzialean bilakatuko litzateke Olarrondo-Ugarte-Kalezar zonaldea.

3. Herrian den etxebizitza premia asetu (bereziki, gazteen artean).



BERANDUENEZ, 2006AN EGINGO LIRATEKE BABES OFIZIALEKO ETXEEN ZOZKETAK.

Alkateak azaldu digunez, "orain dugu hau egiteke aukera. Baina tailer eta enpresa horiek ere, Usurbilen mantendu nahi ditugu". Mantendu ez ezik, Atallun euren jarduerak handitzeko aukera ere izan dezaketela azaldu digu Luis Mari Ormaetxeak.

Interes eta agente ezberdin ugari izan arren, badirudi egitasmoak aurrera egiteke aukera asko dituela.

## Arau Subsidiarioak aldatuko dira

Promozio hau bideratu ahal izateko, Arau Subsidiarioak aldatu beharko dira. Ugarteko area suspentsioan geratuko litzateke, baina Foru Aldundiaren onespena jaso ondoren, Arau Subsidiarioen idatzian txertatuko litzateke Ugartekoa.

Beraz, lehen pausua, egitasmoa arau subsidiarioetan jasotzea. Lur jabeekin ere, hitzarmen bat sinatu beharko luke Udalak. Eta promotore-lanak egingo dituen enpresa ere zehaztu beharko litzateke.

## Zozketa, 2006an

Dena ondo badoa, 2006ko lehen hiruhilabetekoan egingo da zozketa. Garai horretan tramitazio administratibok azken faseetan izango dira, beraz, eraikitze lanak hasteko gertu.

Alkateak eskerrak eman nahi dizkie Ugarteko industrialdekoei. "Egin duten

esfortzua aipagarria izan da. Proiektua azaldu diegu, hainbat bilera egin ditugu eta erantzuna emateko denbora gutxi izan dute. Baina, orohar, gure proposamenari harrera ona egin zaio".

192 etxebizitza eraiki nahi dira. Erdiak, 96, salmenta librekoak. Gainontzekoak, babestuak. 48 etxebizitza babes ofizialekoak lirateke, eta beste 48ak, tasatuak. Promozio honekin, Udalak eraikin bat eskuratu luke ekipamendu gisa.

## Bi urteko epean 600 etxebizitza egingo dira

### UGARTEKO PROMOZIOA

Babes Ofizialekoak	48
Tasatuak	48
Salmenta librekoak	96
Etxebizitzak guztira	192
Zozketak noiz?	2006 hasieran*

### OLARRIONDOKO PROMOZIOA

Babes Ofizialekoak	120
Tasatuak	120
Salmenta librekoak	146
Alokairu sozialekoak	23
Etxebizitzak guztira	409
Zozketak noiz?	2005 amaieran*

\*Epe maximoa. Lehenago egin daitezke.





IÑAKI  
LABAKA

Txokoalde

## Aurtengo San Estebanak

Oporraldiaren bueltan berriz ere hemen gara auzoko berri ematekotan. Abuztua denentzat ere opor garaia eta festa garaia izaten da eta, gurean, auzoan ere nabarmena izan da.

Alde batetik, festak nahiz eta San Estebanen izan, guretzat ere auzoko festak izaten dira. Aurten ere ez dira falta izan Oilasko Biltzaileak, auzokideak suziriak botatzen, bazkariak etxe guztietan festak ospatuz... jai giroa hitz batean.

Duela urte mordo bat bertan izaten ziren erromeri eta dantzaldiak, baina aspaldiko urteetan San Estebana joaten gara auzoko festak ospatzera. Auzoko aitona-amonetara entzun besterik ez dago garai bateko erromerietaz hitzegiten hasten direnean. Han izaten omen ziren arratsaldeetan alpargatak jantzi eta dantzarako irrikitan. Egun berriz, ez da jende asko izaten plazan dantzan. Erromeriak benetak indarra galdu duela nabarmena da. Orokorrean esan daiteke festak asko aldatu



direla. Aurreko alean irakurri genuen moduan, gero eta jende gutxiago izaten da bai dantzarako eta baita festak antolatzeko ere. Moda izango ote? Hala bada ere espero dezagun auzo eta herrietako festak ez galtzea.

Bestalde, udako gau giroan, oporrak aprobetxatuz, gainontzeko hilabeteetan baino jende gehiago gerturatzen da auzoari bizia emanez. Auzoko Erroizpe Elkartean makina bat berriketa eta egonaldi egin dira aurten ere. Ea ba datorren udan ere posible den elkartean afari-bazkariak egitea.

## “Elkartasuna Etorkizuna” Tuteran



IÑAKI  
AGIRRESAROBÉ

Kaleberri

Oraingo delako bi urte, lehengo aldiz, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako jendea biltzeko asmoarekin, “Elkartasuna Etorkizuna” jaialdia ospatu zen Usurbilen. Ohitura horri jarraiki, iaz Arabako Izarran ospatu zen eta aurtengoan Nafarroako Tuteran egingo da Peña Beterriren gidaritzapean. Berau, irailaren 26an egingo da eta egun osorako egitarau oparoa antolatutako dago:

- Goizeko 10,00etan herrialde guztiei ongi etorria.
- Goizeko 11,00etan Urruñako abesbatzaren kantaldia.
- Goizeko 12,00etan kalejira: Urdiñarbeko dantzariekin, Ablitaseko Mendianike taldearekin eta Kilkir fanfarrearekin batera.
- Eguerdiko 13,30ean Sakanako aizkolarien erakustaldia.
- Eguerdiko 15,00etan herri bazkaria.
- Arratsaldeko 16,30ean ekitaldi nagusia:
- Iruñeko Orbela otxotea.
- Usurbilgo bertsolariak, txalapartariak eta trikitilariak.
- Deustuko txistularien emanaldia.

- Kaskanteko Leizea fanfarrearen emanaldia.
- Aezkoako Karmele Galartzaren irrintzi emanaldia.
- Izarrako dantzariak.
- Sartagudako jotarien emanaldia.
- Arratsaldeko 18,00etan partehartzaile orori oroigarri banaketa.
- Arratsaldeko 19,00etan gaitariak eta fanfarreek Nafarroako Gorteetako ereserkiarekin jaiaren amaiera emango dute.
- Esan behar, autobusa antolatutako dagoela eta joan nahi duen orok Txiriboga tabernan izena eman beharko duela. Prezioan bazkariaren txartela eta autobusa sartuko dira.
- Bestalde, jai hau girotzeko, Nafartarrak kultur taldeak Iñaki Perurenaren “50 galdera, 50 jasaldi” ikuskizuna antolatu du. Irailaren 23an, ostegunetan, arratsaldeko 7,30etan.
- Aniztasunaren aberastasun honek elkar gaitzala bazter guztietariko jendea eta distantziak luzeak izan arren, egun batez bihotzak hurbil izan ditzagun.

## Oporren ondorengo "deprea" ote?

**A**gur bero bat irakurle eta herritar guztioi!  
AZer moduz joan zaizue uda?

Beti entzun izan dugu oporren ondorengo hila-beteetan psikologoek lan ugari izaten dutela oporretan egon ondoren lanean hasi eta gaizki sentitzen direnei ongi senti daitezzen laguntzen, edo beti oporretan ezin dela ibili onartarazten.

Ba, nik pertsonalki kasuren bat edo beste eza-gutzen dut eta zuei kontatzea erabaki dut agian zeuek ere ezagutuko baituzue. Noski, izenik ez dut aipatuko ez baitut beharrezkoa denik ikusten, baina agian bat baino gehiago jabetuko da zeinetaz ari naizen eta agian denon artean lagundu diezaiokegu.

Badira jada hainbat hilabete, buzoitik pasatzen ez naizela eta lan hori aitari uzten diodala berak egin dezan. Noski, batek baino gehiagok esango du, "a ze alperra!" baina ez da hori kontua. Buzoira joaten naizen bakoitzean gutxienez bost minutu pasatzen ditut nire posta hartzeko. Ez al zaizue denbora gehitxo iruditzen? Azken finean, giltza hartu, zerrailatxoa ireki, gutunak hartu,

zerrailatxoa itxi eta giltza ateratzeko, zuek esaldi hau irakurtzeko behar duzuen denbora berbera nahikoa da. Baina nik hori egin ostean, nire buzoitik atera ditudan eta nireak ez diren beste zazpi gutunak bakoitzari dagokion buzoian sartu behar ditut. Hara hor non joaten zaizkidan beste lau minutu eta berrogei eta hamabost segunduak. Orduan, egoera aztertzen hasi eta "depre" moduko zerbait izan behar du nahitanahiez postariak, baina hain garbi ez daukadana zera da; "deprea" oporren aurrekoa edo ondorengoa ote den zeren denbora bada hau gertatzen ari dela. Gainera, eta beste anekdotatxo bat kontatuko dizuet, pasa den astean postariari gutuna gaizki sartu zutela esan eta begira zein izan zen erantzuna: "utzi buzoien gainean (bera aurrean zegoen eta lan orduetan) eta hurrengo egunean etortzen garenean hartuko dugu".

Beraz, eta amaitzeko, denok gonbidatzen zaituztet postaria ikusten duzuenean animoak ematera ea "deprea" pasatzen zaion eta gutunak helbide zuzenera iristen diren. Aio eta ondo izan.

Kalezar



MAIDER  
MAKAZAGA

## Batzuen nagikeria, besteen odisea

**A**gur bero bat NOAUA!ko irakurle guztioi!  
Auda amaitzear dagoela hementxe naiz berriro ere auzoaren berri emateko. Gauzak ez dira asko aldatu eta hori da agian aipamen berezia merezi duena. Gauzak ez direla nahi bezainbeste aldatzen, onera behintzat.

Atxegaldek badu berezitasun txiki bat etxebizitzaren antolamenduari dagokiona. Hain zuzen auzoa osatzen duten bost kaleetatik hiruk ez dute irteerarik. Horregatik amaieran T itxura hartzen dute autoek bertan bira arazorik gabe eman ahal izateko. Hau da teoriaran bete beharko litzatekeen egoera baina errealitatean uste baino zailagoa egiten da kale batzuetan helburu hori betetzea. Oztopoa guztiok dakigu zein den: modu desegokian uzten direla autoak, espaloia-aren gainean oinezkoen bidea erabat oztopatuz gainera. Hainbeste kostatzen al da kale bat gora edo behe- ra bada ere, inolako arazorik eragingo ez duen lekuan uztea autoa, gehixeago ibili behar bada ere?

Ez dakit betidaniko arazoa izan den hau baina azken urteetan auto kopuruarekin batera gora doa auzotarren nagikeria aparkatzerako orduan. Nahikoa da bat hastea hurrengoan beste batek jarraitzeko.



Batzuentzat ez da nahikoa lekurik ez dagoenean horretara jotzea, hurrengo goizean jada aparkaleku hutsak egonda ere bezperan gaizki utzitako autoa mugitzeko gai ere ez baitira. Pertsona hauen nagikeria ordea beste askorentzat eguneroko odisea bilakatu da. Ez dakienarentzat, Larousse entziklopediak odisea hitza honela definitzen du: gertaera penagarri eta gogaikarrien segida. Bakoitzak nahi duena, nahi duenean eta nahi duen modura egiten dugun mundu honetan badakit ezer gutxirako balioko duela ale honetako nire kronikak baina ez nadila saiatu gabe geratu.

Atxegalde



AINARA  
ARNAIZ



PAKO  
AGUDO

Santuenea

## Festak auzokideok!

**K**aixo! Oporrak dagoeneko bukatu zaizkigu gehienoi eta udako azken egunak aprobetxatzeko indarrak atera beharko ditugu.

NOAUA ere lanean jarri da dagoeneko eta hementxe gaude berriak zuenganatzeko prest. Berriak, orain, urriak izaten dira. Urtero bezala, gure auzoa bakarrik utzi dugu abuztuan. Gaurkoan gertatu dena kontatu beharrean, etorriko zaiguna zuenganatu beharko. Festak auzokideok!

Oraindik udako azken txanpa honetan, estropadak aparte, auzoko festak geratzen zaizkigu. Urte batzuk kili-kolo pasa ondoren auzoko festak berpiztu dira berriro. Antolakuntzan urtetan zehar jende ugari pasa gara festa onak eta txarrak eginez baino behintzat bizirik mantentzen dira, garai hauetan ez da gutxi. Santurik ez daukagu baina jendeak lanerako gogoia izaten duen bitartean egiten jarraitu behar, parrandarako gogoak eskatzea ere gure auzoan...alperrik da. Beraz parranda eta



lanerako gogoarekin oraindik egon behar irailaren ere.

Besterik gabe errutinarako buelta patxadaz hartu, azken txanpa aprobetxatu eta oraindik oporrak hartzeko zaudetenoi ondo pasa eta gozatu.

## Festei begiratua



SARA  
LAZKANO

Urdaiaga

**I**ritsi zaigu berriro ere iraila, eta honekin batera, nola ez, batzuk lanean hasi behar izan dute, haurrak Ikastolara itzuliko dira, eta udan zehar deskantsurik izan ez duten horiek zortedun izango dira jai egunak baitituzte aurrean. Eta irailarekin batera, gure kronika idatzi beharra ere etorri da eta gaurkoan niri dagokit lan hau. Eta nola ez, eta jada urrun sentitzen bada ere, auzoko festei begiratua eman nahi diet.

Gora-beheraz beteriko festak izan ditugu aurtengoak. Alde batetik jaiak baino lehenago sortutako iskanbila; eta bestetik, beti San Estebanak izaten duten zorte txarraren adierazpena, eguraldi txarra hain zuzen. Hala ere, eta beste ezer esan aurretik, jakinarazi egun hauen antolaketan dihardugunak gustora geratu gara jasoetako emaitzarekin.

Aipatu bezala, eta jaien egunetan, astebururik ez, eta kexa asko entzun behar izan genuen anto-

laketa lanetan aritu ginenak. Bestetik, eta ohienez beti izaten dugu eguraldi txarreko egunen bat festetan zehar, eta aurten Oilasko Biltzaileen Egunean tokatu zen. Ahaztu gabe eskerrak eman, eguraldia ikusirik eta euriari aurre eginez plazan azaldu ziren ausartei. Beraiek gabe ezinezkoa izango zen egun hura hain eder irtetea.

Horregatik, eta datorren urteko jaiak aurtengoak baino hobeak izango diren urteroko esperantza dugun arren, komisioko jendea gustora geratu gara lortutakoarekin, eta zortzi hilabetetako lana hiru egunetan pasatzean nolabaiteko ezinegon, urduritasun, eta, nola ez, tristura sortzen duen arren, jaien amaierako sentimentua positiboa izan da.

Azkenik esan, hurrengo urteari begira, nahi duenak zabalik dituela ateak festen antolaketan laguntzeko. Eskerrik asko.



## Partaidetza

**K**ontxako bandera bukatzearekin batera, lehenengo babarrunak bildu, oportretaz ahaztu eta... San Praixkuak! Bai, bai, aurten ere festak ba omen ditugu!

Aurtengo festak ere, gatzik ez dute falta baina hala ere, ez litzateke gaizki etorriko denok pixka bat gehixeago lagunduko bagenu, ez baita erraza festak horren jende gutxirekin egitea...

Hasteko oilasko biltzaileekin hasiko dira eta ea aurten partaide gehixeago ateratzen garen, urtetik urtera gero eta gehiago baitira ohean lo geratu nahi dutenak.

Herri poteoa ere, urtetik urtera jende gehiago biltzen duen ekitaldia, bertan urte osoan gutxi ikusitako jendea gustora aritzen da elkarrekin berriketan...

Ea ba, aurten ere *agiñatarrok* ondo-ondo pasatzen dugun gure festekin eta ekitaldietan partehartzea haundiagoa den, beraz animatu eta ondo pasa!



Aginaga



**OXKAR  
SANTAMARIA**

## Hormigoï asko, zuhaitz gutxi

**U**da atzean utzi ondoren, Zubietak erdi-eraberritua hasiko du datorkigun kurtsua. Azalaz aldatu zaigu. Frontoia, etxe berriak, Aliri zubi ondoan trenbideari eusten dion hormako obrak,... Guzti honetan baina, ez dakit berrikuntza oro hobetako izan ote den. Ez berrikuntza bera, egindako era baizik, Zubietan hormigoï gehiegi sartzen ari direnaren irudipena baitut. Hormigoï asko eta zuhaitz gutxi. Aliriko zubiaren ondoko horma (oraindik bukatzeke, beraz ikusi behar nola geratuko den) zein Zerrarako bideko horma harriz estali beharrean (Zubietako hainbat etxe edo hormek duten ibai-harri hori adibidez) hormigoizkoak egin dizkigute. Sendo-sendoak, hori bai, baina bistara...

Gainera, trenbideko horma nola geratuko den oraindik ikusteke dago. Izan ere, Euskotren hainbat lekutan egiten ari den trenbide zabaltzea ez da oraindik zati horretan egin, eta beraz pentsatzekoa da gutxi barru toki hori bera obretan izango dela berriz ere. Agian, behin obretan



Zubietak



**OLATZ  
DE MIGUEL**

hasita hau izan zitekeen une egokia dena egiteko...

Baina harria baino gehiago, zuhaitzak dira Zubietan faltan botatzen direnak. Zuhaitz gehiago. Plaza berria berdetzeko, uda partean hain eskertua den itzala emateko... eta batez ere, plaza zaharrean dauden zuhaitzek Zubietari ematen dioten itxura mantendu dadin.

# Ahokotasuna eta bertsolaritza sustatzeko proiektua garatuko du Udarregi Ikastolak

**B**ertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz, ahazko komunikazioa lantzea da proiektu honen helburua. Gipuzkoako Bertsozale Elkarte eta Buruntzaldeko Udalen proposamena ikasturte honetan jarriko da martxan.

Komunikazio ekintza den aldetik, euskal kulturaren adierazgarri izan da bertsoa. Ez hori bakarrik, garaian garai-

ko hizkuntza eskakizunetara moldatzen jakin du.

Gainera, bertsogintzak ahazko adierazpidea hobetzea, komunikazio estrategia eraginkorrek baliaraztea, hizkuntza aldetiko sormena bultzatzea, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztupoak gainditzea, ideiak ordenatzen laguntzea eta komunikatzaile onak hezteko beste zenbait ekarpen interesgarri ekar dakizkioke eskolari.



IRAILAREN 9AN HASIKO DA 2004/2005 IKASTURTEA.

## Xabin Aizarna, Ikastolako zuzendaria: “Ikaslearen euskararen erabilpen maila areagotu dezake proiektu honek”

**H**ezkuntza Proiektuan jasotako helburuak bermatzeko tresna ezin hobea izan daiteke bertsolaritza. Udarregi Ikastola horren jakitun da eta begionez ikusi du Gipuzkoako Bertsozale Eskolaren proposamena. Xabin Aizarna Udarregi Ikastolako zuzendariaren ustez, “ekimen honek ikaslearen euskararen erabilpen maila areagotu dezake”.

### Pedagogikoa bezain ludikoa dirudi proiektu honek, ezta?

Bai, hala da. Proiektuak bi helburu ditu:

- Bertsolaritza eskolaren proiektu curricularrean txertatuz, ikaslearen euskararen erabilpen maila eta kalitatea areagotzea.

- Ikaslearengan bertsotarako zaletasuna piztea, eta bertsogintzari eskolako jardunean bide emanaz, zaletuen beharrak eta gogoak elikatzea.

### Proba moduko bat izango da ala jarraikortasuna izango ote du?

Udarregi Ikastolak Proiektua Lehen Hezkuntzaren hirugarren zikloan txertatuko du, hau da, 5. eta 6. mailetan.

2004-05 ikasturtean 5. mailan arituko gara, hurrengo ikasturteetik aurrera bi mailetan jardunez.

Ikastolara bertsogintzan “espezialista” den kanpoko kide bat etorriko da; bertsolaria, bertsolari gazte talde bateko partaidea da. Honek hamabostean behin ordubeteko eskola emango du proiektuan parte hartuko duen gela bakoitzean. Tarteko astean geletako euskarako irakaslea arduratuko da bertsolariak agindutako lana ikasleek egin dezaten.

Irakaslea bertsolariarekin batera egongo da gelan, batetik zubi lana egiteko eta bestetik proiektuaren jarraipena egiteko, iradokizunak egin eta ikaslearen ebaluaketa jarraian lagunduz.

Aurrekoaz gain, eskolaz kanpoko jardueran, ahal den neurrian, izango litzateke. Eskolan gutxienez urtebetez lantzen ari ondoren, herriko bertso-eskolan kanpoko jardueran parte hartzeko aukera eskainiko litzateke. Zaletuen taldetxo bat sortuz gero, dinamika berezia jarraituko litzateke, herri arteko bertsolaritzaren munduan sarbidea erraztuz.

Proiektuaren finantzaketa aldetik, arduraduna Udala litzateke, horretarako Hezkuntza Sailaren laguntza izanez.

## Bertsotarako zaletasuna berpiztu nahi da

**P**roiektu honek bi helburu nagusi ditu: ahokotasun-moduak hobetu eta bertsotarako zaletasuna sustatu.

Bertsogintza bitarteko delarik, hau da, eskola kurrikulumean bertsolaritza ezarri, ikaslearen euskararen erabilpen maila eta kalitatea handituko litzateke.

Nola? Ikaslea bertso bat idatziz egiteko gai izatea.

- Ikasleak, hasieran laguntzarekin egingo duten jardueran pixkanaka jardueran autonomo bilakatzea, bertsoak egiteko prozedurazko edukiak barnerratzuz eta aplikatuz.

- Komunikazio funtzio eta egoera ezberdinetako bertsogintza lantzea: kontaketa, eskea, zirikatzea, barre eginaraztea,...

Ez hori bakarrik, ekimen honen bidez bertsotarako zaletasuna piztu eta bertsogintzari eskolako jardunean funtzionalitatea emanik, zaletuen beharrak eta gogoak elikatu nahi dira.

Urteko sasoi dena delarik, festa edo ospakizunetan, bertsolaritzaren presentzia bermatu nahi da.

Ikastetxe mailan, bertsogintzan arituko diren arteko topaketak antolatu nahi ditu Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak.



# Esan eta egin

**Z**aila zirudien. Hiru gela eta sukalde berria eraiki beharra zeuden. Eta tartean, udako oporrak. Baina posible izan da. Udal zerbitzuetako lan brigadak jo eta su aritu dira uda osoan eta, horri esker, hiruhela berrirekin hasiko du Haur Eskolak 2004/2005 ikasturtea.

Udaberrian aipatu genuen bezala, aurrematrikulazio garaian marka guztiak hautsi ziren. Eskaera eskaintza baina handiagoa zen. Egoera honek irtenbide azkar bat eskatzen zuen. Irtenbide horrek, gainera, kalitatezko hezkuntza proiektu bati erantzun behar zion.

Udalak, gurasoak eta Haur Eskolako hezitzaileak adostu duten proiektuari esker, adin tarte bakoitzeko gela bat gehiago izango da ikasturte berrian. Hiru aldeek (Udala, gurasoak, Haur Eskolako hezitzaileak) egindako ahaleginari esker, aurrematrikulazioan izandako eskaerari behar bezalako erantzuna emango zaio.

Kalitatea izan da guraso, instituzio eta hezitzaileen kezka nagusia. Kalitatezko eskaintza ahalik eta osatuena izatea. Heziketa arloan bezala, baita gainontzeko arloetan ere. Honen haritik, aipatzekoa da Ekonekazaritza eta Haur Eskolaren arteko lan-akordioa. Maiatzaren 10etik hona, produktu eko-



ARKUPEAK EGOKITU ETA GERO, HAUR ESKOLAK HIRU GELA BERRI DITU.

logikoak dira nagusi ikasleei eskaintzen zaien menuan.

## Usurbildarrentzat, kuotak merkeago

95 haurrentzako tokia izango du Haur Eskola berrituak. Beraz, aurrematrikulazioan izena eman zuten haur eta gurasoen nahia bete ahal izan da.

Finantziarioari dagokionez, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru ekarpenak handiak izango dira ikasturte honetan. Baina gurasoen ahalegina ere hor dago.

Hala ere, bertako haurren kasuan, kuotak kanpoko haurrenak baino merkeagoak dira. Usurbildik kanpo erroldatutako guraso eta haurrak gehiago ordaindu beharko dutela, alegia.



**Urtinea**

*I r k - I r l n r k*

*L r s r l k - K r k*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

**G L G**

**garraioak**

ZABOR BILKETA

TELF: 943 37 01 46



**MAHUKA**

*Q z n t m k u m z k n*

*m k r r u z t*

*h m n u r k t u k u z u*

v s t k l , 3  
f 33 11



**TXIRIBOGA**

**TABERNA**

*ntx k , k t k*

*t l t r k n n t u k*

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

# Gurasoak ere eskolara!

**I**kasteko, inoiz ez da berandu. Galdetu, bestela, Guraso Eskolako kideei. Urtero legez, eskaintza oparoa egin nahi diete usurbildar guraso denei: laboreak, saloi dantzak, yoga, "Memoria Lantzen" ikastaroa, sukaldaritza...

Beraz, zer aukeratzerik bada. Izena emateko eguna irailaren 20a izango da.

Denbora librearen dutenentzat, interesgarria izan daiteke ikas-turte berria.

Ikastaro hauen inguruko informazio gehiago jaso nahi baduzu, irailaren 20an hurbildu zaitez Guraso Eskolaren egoitzara. Gurasoen egoitza Zumarte Musika Eskolaren ondoan dago, Txaramunto, 1 kalean.

## Ikastaro ugari !



### LABOREAK

Boliloak, "punto-cruz", gantxiloa, eta abar.

**Noiz:** urriatik ekaina bitartean.  
Astean behin, bi ordu.



### SALOI DANTZAK

Salsa, merengue, tango, rock...

**Noiz:** urriatik ekaina bitartean.  
Astean behin, bi ordu.



### YOGA

Gimnasia-ariketak, arnasketak, lasatzeak...

**Noiz:** urriatik ekaina bitartean.  
Astean behin, ordu eta erdi.



### MEMORIA LANTZEN

Memoria lantzeko ikastaro atsegina.

**Noiz:** urrian hasi eta 12 egunez.  
Egunean ordubeteko ikastaroa.



### SUKALDARITZA

Eguneroko otorduak prestatzen ikasteko aukera.

**Noiz:** urrian hasita, 8 egun. Egunean ordu eta erdiko ikastaroa.

### IZEN EMATEA

Guraso Eskolan. Txaramunto, 1  
(Zumarte ondoan).

### IZEN EMATE EGUNA

Irailaren 20an.

Goizez: 11:00-12:00.

Arratsez: 17:30-19:30.

### ANTOLATZAILEA

Guraso Eskola.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

# L T ILL E

## ITU GINTZ G SET E GINTZ INST L KUNTZ K

IZTTTX K I.F.F.

( 3 ) 3 2 35-3 33  
M I 21



Zure publizitatea  
HEMEN

Telefona: 943 360 321  
publizitatea@noaua.com



# Lanbide ikastaroak langabetu gazteentzat

**L**angabezian dauden gazteei, DBH graduatua lortu ez duten ikasleei edota lanbide bat ikasi nahi dutenei zuzenduriko ikastaroak urrian hasiko dira. Izena emateko epea, ordea, irailaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago Udaletxean bertan eskura daiteke.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek adosturiko lankidetzak hitzarmen bati esker, 21 urte bitarteko gazteek lanbide bat ikasteko aukera dute.

Aginagako tailerrean bi ikastaro hauek eskainiko dira:

- Sukaldaritza/gozogintza.
- Ile-apainketa/edergintza.

Lasarte-Orian, bi hauek:

- Igeltseritza/ teknika berriak.
- Zurgintza eta egurra.

Andoainen, aldiz, beste bi hauek:

- Automobilaren karrozeria.
- Galdaragintza / Soldadura.

Baina Usurbilgo gazteek Aginagan ez ezik, Andoain eta Lasarte-Oriako tailerrean ere izena eman dezakete. Ikastaro hauetan bakarrik 16-21 urte bitarteko gazteek izango dute izena emateko aukera: DBH graduatua lortu ez dutenak, langabezian daudenak edota lanbide bat ikasi nahi dutenak.

## Bi urteko ikastaroak

Lehenengo ikasturtea urrian hasi eta 2005eko ekainean amaituko da. Ikasleek 1.000 orduko oinarrizko formakuntza teoriko-praktikoa jasoko dute. Ikasturte horretan jorratuko diren arloak hauek izango dira: tailerra, lanbide teknologia, oinarrizko heziketa, arlo sozio-laborala, enpresetara txangoak, kirola eta ekintza osagarriak.

Metodologi gisa, talde-txikietan bilduko dira ikasleak, irakaskuntza zeharo indibidualizatua izan dadin. Hau da, ikasle bakoitzaren premia berezien arabera heziketa indibidualizatua eskaintzen dela, alegia.

## Praktikak inguruko enpresetan

Bigarren ikasturtea 2005eko urrian hasi eta 2006ko apirilean amaituko litzateke. Osagarri modura, 2006ko apiriletik uztaila bitartean eskualde mailako lantegietan 450 orduko lan-praktikak egingo ditu ikasle bakoitzak.

Honez gainera, ikastaro hauetako ikasleei berriro ikasketa arautura itzultzeko bidea zabaldu ohi zaie: DBH graduatuak eskuratzeko laguntza eskainiz edota Lanbide Heziketan sartzeko aukera zabalduz. Hori lortzeko, bi urteko epea dute (lehen eta bigarren ikasturtean zehar). Banakako tutoretza bitartez formakuntza teorikoa ere ematen zaie. Eta ikaslearen motibazio eta animoarekin emaitza onak lortzeko aukera zabalago.

Bertan, lanbide bat ikasteaz gainera, lantegietan praktikak egiteko aukera zabalago dute.



SUKALDARITZA ETA EDERGINTZA  
TAILERRAK ESKAINIKO DIRA  
AGINAGAKO TAILERREAN.

## Iraila osoan iraungo du Etumeta Euskaltegiko matrikulazio kanpainak

**E**tumeta euskaltegian, iraila osoan iraungo du matrikulazio kanpainak. Izen-ematea, euskaltegian bertan egingo da. Bulegoko ordutegia ondokoa izango da:

Astean zehar, goizez, 11:00etatik 13:00era. Eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara.

Aurreko urteetan bezala, honakoan ere guraso eta langabetuentzako matrikulazioak doanekoak izango dira.

Zuzeneko informazio jaso nahi duenak, Euskaltegira hurbil daiteke bulego orduetan. Telefonoz ere egin daitezke nahi adina kontsulta, 943-372 001 telefono zenbakian.

Susana Martinen ikastaroak	Pelexen ikastaroak	Zumarte Musika Eskola	Katekesi ikastaroa
<p>Urrian hasiko dira ikastaroak. Dena den, bilera bat egingo da irailaren 28an, 19:00etan, Aterpen.</p> <p>Aurten, umeei, pintura eta eskulanak ikasteko aukera izango dute.</p> <p>Helduentzat, eskulanak eta zaharberritze edo errehabilitazio ikastaroak.</p> <p>Izena aurretik emateko: 943 37 77 76 / 609 41 38 83.</p>	<p>Urria hasiko dira Pelexen zuzentzen dituen ikastaroak.</p> <p>Azken urteotan bezala, zur-taila eta altzarien zaharberritze edo errehabilitazio ikastaroak eskainiko ditu Pelexek.</p> <p>Ikastaro hauek ere Aterpen egingo dira, urrian hasita.</p> <p>Izena emateko: 653 712 340.</p>	<p>Irailaren 10ean amaituko da matrikulazioa osatzeko epea.</p> <p>2004/2005 ikasturtea, ordea, irailaren 27an hasiko da.</p> <p>Ikasturteari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, deitu Zumarte Musika Eskolako telefono zenbakira: 943 37 15 94.</p>	<p>Izena emateko egunak: Irailaren 20an, 21ean eta 22an, parrokiaren. Ordutegia: goizez 10:00etatik 12:00etara. Arratsaldean 16:30tik 18:30etara.</p> <p>Nahiz eta pasa den urtean izena emandakoa izan, beharrezkoa izango da berriro izena ematea.</p> <p>Ikasturtea urriaren 4an hasiko da.</p>

## Santueneako jaiak

**I**railaren hirugarren asteburuan iritsiko da jai giroa Santueneara. Udari agur esateko, egitarau atsegina prestatu dute Ibai-Ondo Elkarteko kideek.

Festak irailaren 18an hasiko dira, eta lehen protagonistak gaztetxoek izango dira. Eguerdian, ordea, Ibai-Ondok sardin-jana eskainiko die hurbiltzen diren auzotar guztiei. Larunbatean, Imanol DJak girotuko du gaugiroa.

**Auzo bazkaria, igandean**

Ohi bezala, igandean egingo da auzo bazkaria. Txartelak salgai izango dira Ibai-ondo elkartearen eta baita Zaharren Egoitzan ere.

Menua: Marmitakoa, kostilla, gazta eta menbrilloa, kafea. Prezioa: 20 euro.



JAIETAN JOLASERAKO AUKERA UGARI IZANGO DA.

## Jai Egitaraua

### IRAILAK 18 LARUNBATA

10:30-13:30: Haurrentzako jokoak: quads pista, tobogana...

12:00: Sardin-jana.

13:00: Buruhaundiak.

15:30-7:30: Haurrentzako jokoak: quads pista, tobogana...

16:00: Mus Txapelketa (izen ematea 15:30ak arte elkartearen).

17:30: Txokolate jana Zaharren Egoitzan.

19:00: Herri Kirolak auzoko kuadrilen artean txarangak giroturik.

23:00-goizalderarte: Imanol DJ.

### IRAILAK 19 IGANDEA

12:00: Toka Txapelketa, Usurbil mailakoa. Izen-ematea: 2 euro.

Sariak:

Lehenarentzat, %50a.

Bigarrenarentzat, %30a.

Hirugarrenarentzat, %20a.

Auzoko lehenari: auzo bazkarirako bi txartel.

13:30-14:00: Haurrentzako jokoak: quads pista, gaztelua, txapa tailerra...

14:30: Auzo bazkaria (txartelak

salgai Ibai-Ondo elkartearen eta Zaharren Egoitzan).

Menua: Marmitakoa, kostilla, gazta eta menbrilloa, kafea. Prezioa: 20 euro.

16:30-19:00: Haurrentzako aktibitateak.

19:00: Buruhandiak eta Santueneako piper dastaketa, txarangak alaiturik.

00:00: Jaien amaiera suziri ikusgarriekin.

**Antolatzailea:** Ibai-Ondo Elkartea.



txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel: 943 36 04 66

PATRi

JAIETXEA

- Eguteroako menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak

Tel: 943 36 27 25  
Kale nagusia, 14

Menuak astean zehar eta



Kale nagusia 35  
Tel. 943374021

asteburuetan Menu bereziak



## Palestinarekin elkartasunez, olibondo bat landatuko dute Artzabalgo parkean

**U**surbilgo herritar batzuen ekimenez, olibondo bat landatuko da Artzabalgo parkean. Era sinboliko honetan, palestinar herriari usurbildarren elkartasuna adierazi nahi zaio.

Olibondoak esanahi berezia du palestinarrentzat. Oinarrizko elikagaia izateaz gain, balio sinboliko handikoa da. Horren jakitun, Israelgo indar militarrek askotan suntsitu dituzte palestinar olibondoak. Ekimen honen bidez, herritar talde batek elkartasuna azaldu nahi dio



palestinar herriari. Udalak eskaini dien laguntza eskertu nahi dute ekimen honen sustatzaileek.

### PALESTINAREKIN ELKARTASUNEZ

#### IRAILAK 9, OSTEGUNA

Hitzaldia: Thamer Birawi eta Komite Internazionalistak taldeko kide bat.  
Non: Udarregi Ikastolan.  
Ze ordutan: 19:30ean.

#### IRAILAK 11, LARUNBATA

Olibondo baten landatzea Artzabalgo parkean. Txalapartariak, trikitilariak... ekitaldian hartuko dute parte. Artzabalgo frontoi berrian, palestinar postrea eta tea dastatu ahal izango da. Non: Artzabalgo parkean.  
Ze ordutan: 13:00an.

## “Elkartasuna... etorkizuna” Astea Usurbilen

**D**uela bi urte, Aitzaga Kultur Elkartea eta Nafartarren Lagunen ekimenez, “Elkartasuna... etorkizuna” izeneko festa ospatu zen lehen aldiz Usurbilen. Euskal herrialde guztietako harremanak sendotu asmoz egin zen festa hau, lehen aldiz, Usurbilen. Aurten, Tuteran izango da elkartasun festa jasoko duen herria.

#### IRAILAK 23, OSTEGUNA

Iñaki Perurenaren hitzaldia  
Iñaki Perurenaren “50 galdera, 50 jasoaldi” ikuskizuna. Arratsaldeko 19:30etan Udarregi Ikastolan.

#### IRAILAK 26, IGANDEA

##### Denok Tuterara

“Elkartasuna... etorkizuna” jaialdia Tuteran.

Usurbilgo kultur taldeen ordezkaritza (txalapartariak, bertsolariak, albokariak...) bertan izango da, Euskal Herriko beste sei herrialdekoekin batera. Autobusa 8:00etan irtingo da eliza ondotik.

Izen-ematea: Txiriboga Tabernan.

##### Antolatzailea:

Nafartarrak elkartea.

##### Babeslea:

Usurbilgo Udala.

## Errauste-planten aurkako mobilizazioak

**E**rrausketarik Ez! Plataformen Koordinakundeak hainbat mobilizazio antolatu ditu datozen egunetarako.

Irailaren 18an manifestazioa egingo da Lezon. Herriko jaiak izango dira eta errausketaren aurkako aldarrikapenak egiteko aprobetxatu nahi da. Lezoko manifestazioa 18:30ean abiatuko da Urdaburu kaletik (Ijurko auzoan).

Astebete beranduago, Irunek jasoko du errauste-planten aurkako manifestazioa. Irailaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan.

Manifestazioez gain, errauste nahiz beste alternatiben inguruko bi hitzaldi antolatu dira Donostian:

- Irailaren 15ean, Antiguako Lugaritz kultur Etxean, arratseko 19:30ean.

- Irailaren 23an, Sagues-eko Okendo Salan, Uliako kultur Etxean.

Banderolak ere salgai ipini dira. Honako saltokietan: Erroizpe Sozietatea, Arrate Zaharren Egoitza, Imanol Txapartegi, Peña Pagola, Alkartasuna Nekazal Kooperatiba, Antxeta, Aldatz, Alkorta denda, Txapartegi, Txiriboga, Benta, Txirristra, Aitzaga, Irrati, Bordatxo, Lukainkategi, Tragoxka.

## Udaltzaingorako lan poltsa osatzeko deialdia

**D**eialdi honen xedea hiru urtetako epean sor daitezkeen pertsonal beharrei erantzuteko lan poltsa osatzea da.

Lan deialdi honen inguruko datu gehiago abuztuaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eskuratu daitezke edota udal erregistroan. Ordutik kontaktzen hasita, 10 egun naturaleko epearen barruan aurkeztu behar da deialdi honetarako eskaera.

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)


Usurbilgo ataria

H n k n      U z n n s l z  
**USU ILG H TZ KLINIK**

FE N N      E EZ-M SS NENNINGE  
NT NI      E N L UIZ E

K I N U S , 2 I C  
Tlf 3 3 7 7

2 1 7  
USU IL



## Hasi da Aginagako Pilota Txapelketa

**J**ada jokoan da Aginagako II Pilota Txapelketa. San Praixku jaiak arte, partida ugari jasoko du Aginagako pilotalekuak. Gaztetxoak ligaxka bidez lehiatuko diren bitartean, nagusiak kanporaketa bidez egin beharko dute aurrera. Enrike Huizik eman dizkigu txapelketaren xehetasunak.

Partida politak ikusteko moduan izango al gara?

E. H. Bailara mailan nahi duenak izena emateko aukera izan du. Maila polita egongo da, nahiz eta punta-puntako pilotari batzuk ez duten izena eman.

Aginagako Pilota Txapelketa bailarako garrantzitsuenetakoa izango da, ezta?

E. H. Garrantzitsuenetakoa? Urtean zehar Gipuzkoan antolatzen diren txapelketa ezberdinetatik beste bat gehiago. Bai Aginagako txapelketa eta urtean zehar antolatu ohi ditugun txapelketak helburu nagusi bi dituzte:

- Pilotariei partidak jokatzeko aukera ematea.
- Herritarrei partidak ikusteko aukera ematea.

Ikasturte berria hastear da. Beste urte batzutan baino ikasle gehiago espero al dituzue?



SAN PRAIXKUTAN JOKATUKO DIRA TXAPELKETAKO FINALAK.

E. H. Normalean ikastolan hasi eta handik hogeitau egunetara hasten dira entrenamenduak. Beraz iraila bukarran edo urria hasieran hasiko gara.

Beti bezala, haur asko espero ditugu, gustora aritzen direlako. Eta beti bezala, begiraleak lortzen izango dugu nahikoa lan...

## Zelaiiaundikoak, kategorikoak



**E**lgoibarko San Bartolome Jaietan, Zelaiiaundi baserriko Juan Altuna jaun eta jabe izan zen. Sei buru eraman zituen eta horietako bost sarituak izan ziren. Limousin Ganadu Lehiaketan, gainera, Zelaiiaundi baserriko "Mentak" jaso zuen Ganadu Onenaren Saria, emeen kategorian. Salamancan da egun hauetan Juan Altunaren ganadua. Urrian, Tolosan ikusi ahal izango ditugu parekorik ez duten ganadu-buruak.

## HASI DA FUTBOL AURRE-DENBORALDIA

**U**surbil Futbol Taldea hasi da lanean. Iaz bezalaxe, hiru taldek ordezkatuko dute Usurbil FT: Bigarren Erregional mailakoa, Emakumezkoen Senior taldea eta Bigarren Mailako taldea.

## HERRI KIROLAK SANTUENEAKO FESTETAN

**I**railaren 18an hasiko dira Santueneako jaiak. Egun horretan bertan, arratsaldean, herri kirol saioa antolatu du Ibai Ondo elkarteak. Auzoko koadrilen arteko lehia izango da eta txaranga-doinuek girotuko dute ekitaldia. Arratsaldeko 19:00etan hasiko dira koadrilen arteko norgehiagokak.



## Amador Granado: "Ez nago sasoi onenean, baina dominaren bila abiatuko naiz Atenasera"

**E**uropako txapeldun-ordea da kilometroko distantzian. Proba horretan, beraz, onenen artean da. Atenasen badu domina eskuratzeko aukerarik. Bidean, ordea, ez du erraztasun handirik topatu. Oztupoak oztupo, irailaren 18an ekingo dio lasterketari. Zorte on!

Ametsa betetzekotan zara. Baina bidea ez da samurra izan, ezta?

Urte zaila izan da. Plaza kopurua mugatua denez, azken ordurarte ez dut behin betiko konfirmaziorik jaso. Entrenatu, inoiz baino entrenamendu gehiago egin ditut, masa muskularra inoizko handiena daukat... Indartsu nago, baina indar hori ez dut pistan transmititzen asmatu. Ez nago sasoi betean, baina Atenasen dudan guztia emango dut.

Europako txapeldun-ordea zara kilometroko lasterketan, baina azken ordurarte zalantzan izan da zure partehartzea. Ez da bidezkoa, ezta?

Nazioarteko Paraolimpiar Batzordeak dibertsifikazioaren aldeko apostua egin du. Ahalik eta herrialde gehien bildu nahi ditu. Horregatik, herri bakoitzaren ordezkaritza murriztu egin dute. Hasiera batean, 15 ginen joatekoak eta azkenean bakarrik 9 txirindulari izan gara aukeratuak.

Olinpiar Jokoetako belodromoan lehiatuko zara. Zer nolako itxura hartu diozu belodromoari?

Han izan direnek azkarra dela esan didate. Hori gustukoa dut, hobeto moldatzen naiz pista azkerreko belodromotan. Entrenamenduetan ikusiko dugu ondo moldatzen garenentz.

Noiz abiatuko zara Atenasera?

Irailaren 10ean abiatuko gara Madrildik. 18an hasiko dira Jokoak eta egun horretan bertan hasiko dira pistako lehiaketak. Kilometroko distantzian ez ezik, abiadura olinpikoan eta pertsekuzioan ere hartuko dut parte.



IRAILAREN 10EAN ABIATU ETA 18AN LEHIATUKO DA ATENASEN.

Duela urtebete, Atenasen izatea zen zure kezka nagusia. Azkenean lortu duzu.

Dominaren bila abiatuko naiz. Kontua da kategoria ezberdinak uztartu dituztela eta ez dakit nola ibiliko naizen. Ni, printzipioz, domina eskuratzeko aukerari heldu nahi diot. Lehen esan dudan bezala, ez dut sasoi puntu onena aurkitu oraindik, baina domina da nire helburua. Diploma eskuratzeko ez legoke gaizki, baina sikiera brontzezkoa eskuratu nahiko nuke.

Zein da zure arerio gogorrena?

Jiri Zerec txekiarra. Europako Txapelketan berak irabazi ninduen.

Ondo moldatzen al zara berarekin?

Bai, primeran. Pistatik at, oso harreman ona dugu txirindulari gehienok.

Urte dexente egin dituzu txirindularitza egokitan. Baina hauek zure lehen Jokoak izango dira, ezta?

Bai, hala da. Atenasen ondo moldatzen banaiz, beste urtebetez jarraituko dut pistan. Bestela, ez badut lan ona egiten, txirindularitza utziko dut. Lana eta entrenamenduak uztartzea gero eta zailago egiten baitzait.

Orain arte ez duzu babes handirik izan. Jokoetarako, aldiz, Federazioak babes gehiago eskaini al dizu?

Bai, hala da. Bartzelonan astebete egin berri dut selekzioako kideekin batera entrenatzen.


### Lan asko, babes gutxi

Amador Granado puntako kirolaria da. Txirindularitza egokitan, Europako onenetakoa. 37 urte ditu eta hauxe izan daiteke bere azken denboraldia. Medikuen aholkuei jarraiki, txirindularitzari heldu zion 1998. urtean. Laster hasi zen nabarmentzen. Egun, kilometroko distantzian onenetakoa da. Baina ez ditu txirindulari profesionalen erraztasunik. Lanak uzten dion denboran entrenatzen du, eta bere soldatarekin ordaintzen ditu bizikleta eta beharrezko materiala. Atenasera, ordea, babes gehiago jaso du Federaziotik. Atenasen izate hutsarekin, merezitako errekonozimendua jaso du. Hala ere, Amador ez da partehartzearekin konformatzen. Domina nahi du. "Usurbilgo herriarentzat eta familiarentzat ederra litzateke", aitortu digu Amadorrek.



# Kaixo lagunok!

ADIERAZ EZAZU, ZEIN BIDE DUEN IRUDI-KO ERLEAK LOREAREN POLENA LORTZEKO.



BILA ITZAZU HITZ HAUEK  
HIZKI ZOPA HONETAN:

Propoleoa  
Polena  
Argizaria  
Eztia  
Pozoia  
Erlea

P	E	Z	T	I	A	H	Z	U	N
K	R	A	D	N	I	O	T	V	W
B	L	O	X	R	T	H	J	N	B
H	E	G	P	U	S	U	A	F	C
J	A	I	O	O	O	Y	N	U	E
C	I	C	Z	C	L	B	E	E	F
Z	Y	I	O	I	C	E	L	X	G
I	X	C	I	F	B	C	O	A	J
E	G	L	A	P	Ñ	E	P	A	K
I	A	R	G	I	Z	A	R	I	A

## ASMAKIZUNA

Zer ote da? Zer ote da?  
Urre koloreko  
Xomorro hegalaria  
bizkor eta azkar hori?

## LOTU BI ZUTABEETAN ZERIKUSIA DUTEN HITZAK

Abaraskak  
Propoleoa  
Polena  
Argizaria  
Eztia

Kandelak  
Lorea  
Erleen kola  
Gozoa  
Gelaxkak



# NOAUA!ko LEHIAKETA!!



John Irving-en  
**BESTEEN AMETSAK**  
(Txalaparta argilalekua)  
*Liburu honetan sei kontakizun labur aurkezten dira. Idazleak konformismoaren satira, neurrigabeko irudimena eta imajarriaren atsegina azaldutzen ditu.*

eta

Etsaiak taldearen  
"...AMEN" musika cd-a  
*Cd honetan ere 5 kantu zahar daude; Instrumentala Hemen gaude, Ez ibxi eramaten, Demokrazi faltua eta Subersión.*

Animatu eta parte hartu Noauako lehiaketan. Galdera hau asmatzen duten guztien artean sari zoragarri hau zozketatuko dugu. Ezetz asmatu?

1. Esango al diguzu nola izena duen herria sortu berri den Errauskailuaren aurkako plataformak?

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **IRAILAK 19**

Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguakitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarte buzoian edo e-posta: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

187. lehiaketako irabazlerik ez dago. Inor ez da udako oporretako postalik bidaltzera animatu. Beraz, Noaua! Kultur Elkarte produktu sorta hau beste baterako utzi beharko dugu.



## ETXESAGASTI Inmobiliaria

### Lan egiten dugu:

- Promozioetan
- Eraikuntza berrietan
- Bigarren eskuko etxeetan

**Telefonoa: 943 696 854**

### Bilatzen ditugu:


- Etxeak
- Baserriak
- Lur sailak

### ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, Inauteriak, NOAUA! Txiki, fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

### Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 E-posta: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321



Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
<b>09.52/</b>		<b>10.21/</b>	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	<b>11.22/</b>		<b>11.47/</b>
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
<b>20.21/</b>		<b>20.48/</b>	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	<b>22.07/</b>		<b>22.32/</b>
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

\* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero  
\* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

### Goardiako farmaziak

<b>Irailak 10, ostirala</b> E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte	<b>Irailak 19, igandea</b> E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
<b>Irailak 11, larunbata</b> E: Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte	<b>Irailak 20, astelehena</b> E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
<b>Irailak 12, igandea</b> E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte	<b>Irailak 21, asteartea</b> E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte G: Oa, Kontzeju Zaharra 1 Usurbil
<b>Irailak 13, astelehena</b> E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte	<b>Irailak 22, asteazkena</b> E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte G: Tanko, Idiazabal 39 Urnieta
<b>Irailak 14, asteartea</b> E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte	<b>Irailak 23, osteguna</b> E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte G: Etxebeste, Elkano 9 Hernani
<b>Irailak 15, asteazkena</b> E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte	<b>Irailak 24, ostirala</b> E: Gil, Nagusia 24 Lasarte G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani
<b>Irailak 16, osteguna</b> E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte	<b>Irailak 25, larunbata</b> E: Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil E/G: Urbistondo San Francisco 1 Lasarte
<b>Irailak 17, ostirala</b> E/G: Acha-Orbea, Hipodromoa, 6 Lasarte	<b>Irailak 26, igandea</b> E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
<b>Irailak 18, larunbata</b> E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte	

E: Egunez G: Gauzez E/G: Egunez eta gauzez



Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40	09.05	09.25		07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		<b>07.45</b>	<b>08.05</b>	<b>08.15</b>	<b>08.40</b>
<b>09.00</b>	<b>09.25</b>	<b>09.35</b>	<b>09.55</b>	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
<b>10.00</b>	<b>10.25</b>	<b>10.35</b>	<b>10.55</b>	<b>08.45</b>	<b>09.05</b>	<b>09.15</b>	<b>09.40</b>
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
<b>11.00</b>	<b>11.25</b>	<b>11.35</b>	<b>11.55</b>	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	<b>09.45**</b>	<b>10.05</b>	<b>10.15</b>	<b>10.40</b>
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
<b>12.00</b>	<b>12.25</b>	<b>12.35</b>	<b>12.55</b>	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
<b>13.00</b>	<b>13.25</b>	<b>13.35</b>	<b>13.55 #</b>	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	<b>12.45</b>	<b>13.05</b>	<b>13.15</b>	<b>13.40</b>
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
<b>14.00</b>	<b>14.25</b>	<b>14.35</b>	<b>14.55</b>	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	<b>13.45</b>	<b>14.05</b>	<b>14.15</b>	<b>14.40</b>
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	<b>14.45</b>	<b>15.05</b>	<b>15.15</b>	<b>15.40</b>
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
<b>17.00</b>	<b>17.25</b>	<b>17.35</b>	<b>17.55</b>	<b>15.45</b>	<b>16.05</b>	<b>16.15</b>	<b>16.40</b>
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
<b>18.00</b>	<b>18.25</b>	<b>18.35</b>	<b>18.55</b>	<b>16.45</b>	<b>17.05</b>	<b>17.15</b>	<b>17.40</b>
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		<b>17.45</b>	<b>18.05</b>	<b>18.15</b>	<b>18.40</b>
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	<b>18.45</b>	<b>19.05</b>	<b>19.15</b>	<b>19.40</b>
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
<b>20.00</b>	<b>20.25</b>	<b>20.35</b>	<b>20.55#</b>	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	<b>19.45</b>	<b>20.05</b>	<b>20.15</b>	<b>20.40</b>
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
<b>22.00</b>	<b>22.25</b>	<b>22.35</b>	<b>22.55</b>	<b>21.45</b>	<b>22.05</b>	<b>22.15</b>	<b>22.40</b>
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04:00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06:00		06.25	06.45				

\*\*Aiaraño # Larunbatetan, Orion autobus aldeketa Aiara  
\*Aiatic dator      ▣ Asteburutan  
▣ Soilik              ▣ Larunbat lanegunetan  
▣ larunbata gauzez

### Zubieta-Donostia TST autobusak

<b>ASTEGUNETAN</b> <b>Zubieta-Donostia</b> 7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)
<b>Donostia-Zubieta</b> (Gipuzkoa plazatik) 7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45
<b>LARUNBATETAN</b> <b>Zubieta-Donostia</b> 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
<b>Donostia-Zubieta</b> (Gipuzkoa plazatik) 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
<b>JAI EGUNETAN</b> <b>Zubieta-Donostia</b> 11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)
<b>Donostia-Zubieta</b> (Gipuzkoa plazatik) 11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

\* Eskola egunetan  
T Autobus aldeketa beharrezkoa da. 943 361740.

### Datorren Noaua!

Iraila						
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Hurrengo alca ●

### Bai esan?

• Udala.....	37 19 51
• Udaltzaingoa.....	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak.....	37 01 48
• Anbulategia.....	36 20 13
• Udarregi ikastola.....	36 12 16
• Udarregi (Agerialde).....	36 38 95
• Oiardo kiroldedia.....	37 24 98
• Zumarte.....	37 15 94
• Etumeta.....	37 20 01
• Taxi geltokia.....	36 21 78
• D.Y.A.....	46 46 22
• Ertzantza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdiak.....	112
• Anbulantziak.....	112
• Gure Pakea.....	37 32 28
• Gure Elkarte.....	37 17 51
• Arrate Egoitza.....	36 63 40
• Eusko Tren.....	47 09 76
• Noaua! aldizkaria.....	36 03 21
• Bake epaitegia.....	37 23 36
• Oa farmazia.....	37 60 76
• Iturralde farmazia.....	36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	47 09 76



## Oharrak !

### ETXEBIZITZA

- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364 469.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kotxe bat salgai daukagu 600 eurotan. Interesatuak edozein ordutan deitu 635729637 telefonora.
- Usurbilen, Urbil merkatal-zentruaren ondoan 420 m2tako lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokitu, lokal argia, ordenagailu-sarea instalatua, ordenagailu askorentzako hargunea. Interesatuak deitu: 943-363040
- Salgai Opel Corsa 1.4. Ondo zaindua. 80.000 km. 678 619 127.
- Garaje bat saltzen dut Kale Nagusian, prezioa: 12.000 euro. Beste garaje bat alokairuan uzteko prest nago, Bizkarren, 50 euro hileko. Telefonoa: 687 40 62 09.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Umean zainduko nituzke uztailean arratsaldean. Esperientzi duan eta euskaldun. Interesatuak deitu 943361115 zenbakira.
- Emakume bat eskeintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko (urteetako esperientzia). Interesatuak deitu: 626641155 Mariaje.
- Jatetxeetako platerak garbitzeko edo antzeko lanetarako norbait falta bazazu deitu: 626641155 Mariaje.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. 943 37 10 32.
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldean bi orduz. 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo

antzeko zerbaitean. 652 757 495.

- Emakume bat eskaintzen da lanerako goizes edo arratsaldean. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943365737.

### Lan-eskaintzak

- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodarekin. Gutxi erabilia berria dago. Interesatuak 943376902 - 665749615 gaez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32 (Arratsaldean).
- GOLF CL txuri bat daukagu salgai. 140.000 km dauzka eta oso ondo zaindua dago. Interesatuak 667 521 893 telefonora deitu.
- Pultsera bat aurkitu dut anbulategiko aparkalekuan. Galdu duenak deitu: 649387758.
- Poltsa bat galdu dut herrian. Topatu baduzu deitu 637 046 389 telefonora.
- Zilarrezko brotze bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefonora.
- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 (Arantxa)
- Ingelera eta euskara. Neska arduraduna eskaintzen da klaseak emateko. Izatez euskalduna eta eskola ingelesean ikasia. Edozein adin eta ordutegitan erakusteko prest. 677656565 / 943313517 (Ane).
- Frontoi ingurutik Ugarte poligono tartean zilar koloreko erloju bat galdu dut. Norbaitek aurkitu badu NOAUA!ren egoitzara ekarri.

### Zorionak Ekain!

Irailaren 8an 3 urte egin zenituen. Muxu asko denon partez eta ondo pasa!



### Zorionak Nerea!

Irailaren 7an 12 urte bete zenituen. Espero dugu egun berezi hura ondo pasako zenuela. Zorionak eta muxu haundi bat zure kuadrilaren partez.



### Zorionak bikote!

Enetz eta Xuban, 8 eta 11 urte bete zenuzuten abuztuan. Muxu eta besarkada handi bat familiaren partez!

## JAIOTZAK

- **Irati Alduntzin Alegria** 2004ko uztailean 18an.
- **Naia Lorente Beloki** 2004ko uztailean 26an.
- **Hodei Jauregi Macuso** 2004ko uztailean 28an.
- **Sergio Martinez Herreras** 2004ko abuztuaren 4an.
- **Ibai Zuriarrain Saralegi** 2004ko abuztuaren 8an.
- **Ekain Ramos Martin** 2004ko abuztuaren 21an.
- **Paula Garcia Tardio** 2004ko irailaren 2an.

## HERIOTZAK

- **Jacinta Manterola Gomez** Uztailean 26an hil zen 93 urte zituela. Aginaga.

## SOLOZABAL AUTOESKOLA



- Klase teoriko zein praktikokoak, norberak nahi dituenen
- Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidulariek gurruiatzeko nuzio arteko agentzia ziburta agiria lortzeko ikastaroak
- Garraio arriskutsuen ikastaroak
- Gidatzeko karnet guztiak

Kale Nagusia Telf.: 943 376 936 Usurbil 20170



## Agenda !

## Irailak 9, osteguna

Hitzaldia: Thamer Birawi eta Komite Internazionalistak taldeko kide bat.

Udarregi Ikastolan, 19:30ean.

## Irailak 11, larunbata

Olibondo baten landatzea Artzabalgo parkean. Txalpartariak, trikitilariak... ekitaldian hartuko dute parte. 13:00ean.

## Irailak 18, larunbata

Errausketarik Ez! Plataformen Koordinakundeak antolaturiko manifestazioa Lezon. 18:30ean Urdaburu kaletik (Ijurko auzoan).

## Irailak 18/19

Santueneako Jaiak (ikus 14. orrialdea).


## Irailak 23, osteguna

Iñaki Perurenaren "50 galdera, 50 jasoaldi" ikuskizuna. Arratsaldeko 19:30etan Udarregi Ikastolan.

## Irailak 26, igandea

"Elkartasuna... etorkizuna" jaialdia Tuteran. Autobusa 8:00etan irtengo da eliza ondotik. Izen-ematea: Txiriboga Tabernan.

## Literaturaren txokoa !



## Inork eskatu gabeko poemak

Inork eskatu gabeko Imezuei deitzen diegu spam, Interneteko publizitate zaborrari. Poema hauek ere inork eskatu gabe egin ditu Castillo Suarezek, eta inork eskatu gabe bidaltzen dizkigu; gure disko gogorra aztoratzeko, eguneroko lanen eta harremanen errutinak bere onetik ateratzeko.

Sentimenduez ari da Castillo Suarez bere poema gehienetan, baina modu ez sentimental, ia-ia antisentimental



batean. Poesia narratiboa egin du askotan, mikroipuineren hurbilduz tarteka, baina zalantza eta misterio-hari bat utziaz beti airean; sexua agertzen da sarritan bizikizun-kontakizun hauetan, baita herri honetan bizi garen guztioi dagokigun egonezin kolektibo baten printzak ere, baina ironiaz jantzirik hala ere.

## Fitxa teknikoa:

Liburua: Spam Poemak

Egilea: Castillo Suarez

Orrialdeak: 110 or.

Salneurria: 10,80euro.

## Egin kontu !

## Hau da hau onddo puska!

U surbil aldean onddoak azaltzen hasi direla eta, batzuren bidean agertu dira, eta noski, jaso eta afari moduko goxoren bat egiteko aukera ere izan dute. Zaila izaten da, ordea, onddo bakar batekin bakarrik afaria moldatzea, baina honako honekin eta arraultz pare batekin ez litzateke zaila izango: argazkian agertzen den pisua 739 gramo izan arren, bildu eta segituan 758 gr pisatzen baitzitu. Ederra, ezta?



## Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitezarra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

LOU  
IZARRALDE ilepainleki mixtua

Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.



Solarium a, estetika, depilazioa  
manikura, manikura frantsesa,  
pedikura, eta makilajea.

Zubizurrena, 5b Telf: 943 36 19 71



EUSKAL  
OKELA



h k k l , 4

T H 43 3 57 42

LK T  
UT ZE ITZU

F OT K

ZKI K

IKTU K

ETXK

K NOEL TU K

al s p s t e r a



Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

f t x k  
f l a k k l r i n  
l s ( k z k ( I N 2 + )  
f x z r z u ( s - d z k )  
l n n k k ( + )  
r 1 - k 1 k  
Eriku - k l k ( w r - k r l k )  
Zur - z k u z l - n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



URDANTZI

Tel.: 943 361439  
Mob.: 649 435475  
649 435476

ERRAZKIN  
IGELTSEKITZA

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

urki-mitxe@euskalnet.net

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura



Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE  
ARANZAZISTROKI

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6

Kalezar

943 36 05 50 - 606 37 21

PINTURAK

RAMON BARCENI-

- Pikor pintura eta gotele lanak
- Papereztatze- lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

FERNANDO  
PINTURAK

✦ Enpapelaketak eta pinturak orokorrean

✦ Lurzorak jartzen dira

Tel: 943 36 60 19- 36 34 60



ARROZTEGIAK

BEREZIARTUA S.L.

Egurra eta egurra-  
aluminiozko LEIHOAK  
eta ESKAILERAK

Aginaga Telf: 943 37 15 71



JOXE MARI  
IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12 21

BARRENETXE

SALSAMENDI ARREGI,

Telf.:943 362664

Faxa: 943 374002

Barren Etxe kalea, Zubieta

Telefona: 943 37 64 15

Faxa: 943 36 05 10

ARROZTEGIA

ANTONIO URRUZOLA

Astcastain industrialca, 3

ELEKTRIZITATEA

Tel: 943 36 50 95 Mug: 609 068 111

Elektrizitateak

IZAGUIRRE

Goiz Argi etxea, 37 Kalezar

ARGILAN

JOSE LUIS BORDA ZUGASTI

- Argizatze eta industria instalazioak  
Komponentzak

Bordaberri, 5 behe

Tel: 943 36 13 80  
Mug: 629 27 28 59

ESKAIOLAK

EUGENIO NORIEGA

PLADURREZKO LANAK  
TEILATU MODULARRAK  
DEKORAZIOAK

Erdiko kalea, 12  
Telf: 943 36 56 65-  
616 92 60 25

JOSE ANTONIO  
ELORZA

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

ITURGINTZA

PORTULARRUME

- Bainuko altzariak
- Era guztietako manparak



Telf: 943 36 46 37

JAVIER ORBEGOZO



Iturgintza  
Gasa



Berogintza



Aldeanbata, 1, Eskoia TEL: 943 37 29 97

TEL: 609 60 07 89

JOSEBA  
ARANGUREN

☎ 943 83 00 72

659 88 39 12

IÑAKI  
LATAILLADE

Iturgintza, gasa, berogintza,  
klimatizazio instalakuntzak eta

Mobila: 609 88 80 21



Lantzerria Iturgintza

USURBIL

Jose txo Ikatzeta

687 95 12 25

**BERRIA!!!**

Naturalki, zaindu zaitez

## **ALKARTASUNA KOOPERATIBA**



## **Nekazaritza ekologikoko produktuak**

- Olibak
- Oliba olioa
- Algak
- Modena ozpina
- Txiapas, Kuba eta Kolonbiako kafeak
- Arroz aukera zabala
- Arta txikia
- Babarrunak, dilistak,...
- Txokolate krema
- Tipula
- Muesli aukera
- Fruitu lehorrak
- Era guztietako pasta
- Irinak
- Tomatea
- Gazta
- Ardoak
- Garagardoa
- Baratxuria
- Potimarron Kurkubia

**Baita garbikari ekologikoak ere!!!**

**Lurra babestuz, zeure osasuna zaindu**